

**HARAKAI-URKAIKO KOOPERATIBAREN 25 URTEURRENA**  
**25 ANIVERSARIO DE LA COOPERATIVA HARAKAI-URKAIKO**

2014-12-17 Zestoa 17-12-2014

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintariok, herri ordezkariok, Harakai–Urkaiko presidente eta arduradunok, bazkideok, baserritarrok, abeltzainak, gonbidatuok, jaun andreok, egun on guztioi.

25 urte bete dituzue eta badakit, alde zurratik, hainbat urteetako lana egin zenutela ekimen hau martxan jarri ahal izateko. Badakit herriz herri, auzoz auzo eta baserriz baserri ibili zinetela proposamena eginez eta bazkideak elkartuz.

25 urte pasa dira eta ordungo ahaleginak fruitua eman du. Abeltzain kooperatibaren ibilbidea oparoa izan da. Bazkide gehiago erakarri dituzue, hemen ikusi ditugun bezala eta esan nahi egin diguzuen bezala. Kalitatezko zerbitzu bat eskaintzen duzue. Lehen sektore osoari ekarpen izugarria egin diozue.

Azken finean 25 urte hauetan lehen sektoreak asko irabazi du, profesionaltasunean eta kalitatean, zati batean behintzat zuen lanari esker. Argi dago, baita ere, “irabazi” horiek guztion mesederako izan direla. Gaur egun, hiritarrek produktu edo ekoiztutako hobeak jasotzen ditugu, kalitatea zaintzen da eta estimatu ere gehiago egiten da. Orokorrean lehen sektoreak duela 25 urte baino gizarte onarpen hobea ere badu.

Bigarren ideia bat ere azpimarratu nahi nuke. Hau da, Harakai–Urkaikok erakutsi duen jarrera. Kalitatearen aldeko jarrera, Berrikuntzaren aldeko jarrera, Merkataritza eredu berrietara moldatzeko jarrera.

Eusko Jaurlaritzan 2020 urteari begira, Giza garapena eta Hazkunde iraunkorra bultzatzeko estrategia onartu egin dugu. Etorkizunari jarrera berri batekin egin behar diogu aurre. Estrategia honetan lehen sektoreak garrantzi berezia dauka.

Ondo dakizuenez, gure etxeetan, bertako produktuak, kalitatea eta elikadura geroz eta gehiago estimatzen dira. Beraz, zuen lana eta ekarpena ezinbestekoak zaizkigu gure herriaren garapen jasangarria bermatzeko. Erronka honi elkarrekin erantzun behar diogu.

Bukatzeko, iragana eskertuz, etorkizunari begiratzea dagokigu eta gaurko eguna bi hitzekin ixtea gustatuko litzaidake: Zorionak eta eskerrik asko!

Zorionak ez delako batere erreza 25 urtez kooperatiba bat kudeatzea eta etengabeko erronkei aurre egiten asmatzea.

Eskerrik asko euskal gizartearen izenean. Zuen ahalegina estimatzen dugu, label duen zerbitzu bat eskaintzen duzue eta zuei esker guk label produktoak jasotzen ditugu eta disfrutatu dastatu egiten ditugu.

Zorionak beraz, eta eskerrik asko Harakai–Urkaiko abeltzain kooperatibari eta urte askorako!